

# noaua

## ONGIETORRI

Mundualdiaren baitan, urte hasieratik Usurbilera bizitzera etorritakoei harrera egingo zaie udaletxean. / 15



ARGAZKIA: NOAUA




**Azaroaren 7an, nekazaritza tresnen IAT azterketak egiteko aukera** / 05



**'650 Usurbil Bizi' gabonetarako otarrak prestatzeko garaia da** / 10



**Igandean Sutegin, Fermin Muguruzaren 'Bidasoa' filma ikusteko aukera** / 18



**Txokoaldeko Kultur Asteburuaren baitan, bertso-afaria Erroizpe elkartean** / 22

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*

**mistoa**

**GOLDWELL  
ELUMEN**

*Azkeneko produktu eta teknikak!*

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**Auto Guria s.l.**

**Auto Guria  
Mobil Service**

**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

**KONFIDANTZAZKO TAILERRA!**

☎ 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

**NOAOAK  
BIDAIK**

**Bali**

**IRTEERA 2024ko apirila**

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

**USURBIL  
OPTIKA**

**4 Urteko  
Garantia**

Interes  
Gabeko  
Finantzaketa  
\*Banketxeak onartzean

Entzumen  
azterketa  
**DOAN**

**PILARIK  
GABEKO**  
TEKNOLOGIARIK  
AURRERATUENA

Entzun  
telebista  
eta mugikorra  
zure audifonoetan

**943 37 02 69**

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

## Greba feministari begirako asanblada

Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitu duen greba orokorrari begira, informazio bilera mistoa iragarri du herri batzordeak ostiralera, azaroak 3, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. "Bertan dugu azaroaren 30a, Greba Feminista Orokorra!". Ohar bidez adierazi dutenez, gai hauen inguruan arituko dira batzarrean: "Zertara goaz? Zer egingo da Usurbilen?".



Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan batuko dira Potxoenean.

## Garbigune mugikorra, aste honetan Zubietan

Azaroaren 2tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxe-ko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Azaroaren 9an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrera eramango dute.

## 1973. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izen emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

## 1959an jaiotakoekin bazkaria, azaroaren 18an

1959an jaiotakoekin ere iragarri dute beren ospakizun-eguna: azaroaren 18a. Bazkalaurretik ordea, argazkia aterako dute Bordatxo tabernaren atarian, eguerdiko 13:00ean.

Topaketa honetan izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 659 139 073.

## 1945ekoak Artzabalen elkartuko dira azaroaren 19an

1945. urteko kinto bazkaria antolatuko duten lagunek ohar hau bidali digute: "1945. urtean jaiotakoekin bazkaria antolatu dugu azaroaren 19an igandea, Artzabalgo jatetxean. Izen emateko 645711033 telefonora deitu behar da. Izen emateko azken eguna azaroaren 14a izango da".

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkartea  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



LUIS ARANALDE

## Bakearen Nobel saria 2023

**J**oan den urriaren seian, Norvegiako Nobel Batzordeak Bakearen Nobel saria 51 urteko Narges Mohammadi aktibista iraniarrari eman zion. Arrazoiak: "Irango emakumeen zapalketaren aurkako borrokarengatik", dio Nobel batzordeak eta baita ere "pertsonek ororen giza eskubideak eta askatasuna defendatzeagatik".

Unibertsitatean bertan hasita zegoen giza eskubideen alde borrokatzen; fisika eta ingeniariaren ikasten zituen garai hartan. Hiru hamarkada badira eskubide berdinak eskatzen dituela irandar guztientzat eta aldi berean Irango errepublika islamiarraren giza eskubideen urraketak salatu.

Giza eskubideen defentsan ateratzeagatik prezio handia ordaintzen ari da, ia dena galdu du: lana, askatasuna eta osasuna. Bere bi semeak ikusteko eskubidea kendu diote, batez ere, hazten ikustea. Bikiak dira, 16 urtekoak eta zortzi urte badaramatza ikusi gabe. Parisen bizi dira beren aitarekin. Sarituak Iranen gelditzea erabaki zuten, izan ere, "onuragarriagoa izango da herriarentzat eta", dio bere senarrak. Erregimen iraniar hau teokratikoa da eta ayatola (erlijioan adituak diren erlijiosak) ultra kontserbadoreek presiditzen dute. Une honetan emakumeen esperean dago Mahomadi, "Estatuaren kontrako propaganda" zabalitzeagatik, diote agintariek. 1998an kondenatu zuten lehen aldiz, eta geroztik Erregimen iraniarrak 13 aldiz atxilotu du, 5 aldiz kondenatu guztira 31 urteko kartzela zigorra eta 154 zigorrada ezarri dizkio. Demokraziaren, hauteskunde libreen eta herio-zigorraren abolizioa-



Narges Mohammadi iraniarrak jaso du Nobel saria.

ren alde ere aritu da lanean buru belarri. Mohammadik hasiera batean bere protesta jarduera hori estatuko ingeniariaren lanarekin eta kazetari bezala eguneroko kolaborazioarekin bateratu zuen.

Une honetan, Irango egoera giza eskubide arloan beldurgarria da. Teokrazia (Jainkoaren izenean agintzea) guztiak dira oro har negargarriak, Irango agian okerrera, makurrena. Adibide batzuk: duela gutxi, Mahsa Amini neska gaztearen hilketaren urtebetetzea gogoratu dute Iranen. Kartzelan eraila izan zen beloa behar bezala jantzita ez zeramalako.

**"GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAN ATERATZEAGATIK PREZIO HANDIA ORDANTZEN ARI DA. IA DENA GALDU DU: LANA, ASKATASUNA ETA OSASUNA. BERE BI SEMEAK IKUSTEKO ESKUBIDEA KENDU DIOTE"**

Horren aurkako protestetan 500 manifestari hil dituzte, 12 urkatuak izan dira, 18.000 atxilotuak. Protestak hasi zirenean, Ammanik bere hiyaba edo estalkia kartzelako patioan beste emakume preso batzuekin batera erre zuen.

Lehen ere idatzi nuen foro honetan, hiyaba edo beloa jantzea ez duela Mahomak eskatzen, ez dela Koranaren agindu bat. Matxismo madarikatuak jarritako tradizio bat besterik ez da. Emakumeak gizona koaren objektua izan behar du eta bere mendean egon. Hori badakite Irango emakumeek eta ideologia nazkagarri horren aurka borrokatzen dute. Hain zuzen, aurtengo A. Sajarov saria, goian aipaturiko Amini erailari eta Iranen giza eskubideak defendatzen dituen emakume taldeari eman zaio duela egun batzuk. Zalantzarik gabe, nahi duten bezala jantzeko eskubidearekin bakarrik ez dira baretuko emakume irandarrak. Libertate guztiak eskuratu nahi dituzte. Mohammadiri eta beste emakumezko borrokalari horiei ebanjelioko zorionbide hura aplikatuko nieke: "Zorionekoak justiziaren gose eta egarri direnak, aseak izango baitira".

## Datorren astean, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek bi urtean behin egiten duen moduan, azaroaren 6an izango da hurrengo odol-emaitea, 16:30-20:30 artean Udaurregin. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela astelehen goiz horretan: 943 007 884.

## Barreterapia Santuenean

Santuenea Kultur Elkartek barreterapia tailerra antolatu du azaroaren 25ean, 10:30-12:30 artean Santueneko Gure Txikiak ludotekan. Hitzordurako izena aurrez eman behar da, santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean. Sei euroko sarrera ordaindu behar da. Herriko deek izango dute lehentasuna.

## Eraikuneren informazio jardunaldia Lanbide Eskolan

Euskadiko Eraikuntza Klusterrak, Eraikunek 'Construction Talent Hub' informazio jardunaldia iragarri du ostegunean, azaroaren 2an, 10:00-12:15 artean Usurbilgo Lanbide Eskolan. Saioa herri honetako ikasleei zuzendua egongo da, "eraikuntza eta birgaitzearen alorreko joerak gerturatzeko; izan ere, datozen urteetan enplegu-potentzial handieneko sektoreetako bat izango baita".

Hitzordu honetan, eraikuntzaren alorreko enplegu sustapena, enplegu horren oraina eta etorkizuna, birgaitze sektoreko aukerak eta "sektorearen jasangarritasunaren garrantzia" hizpide izango dute. 'Lanbide COE: birgaitzeagatik irekita' proiektua ere aurkeztuko dute.



Alkartasuna kooperatibaren kanpoaldean atentiduko dute. Hitzordua aldeztatik eskatu behar da. ARGAZKIA: ASAJA.

# Nekazaritza tresneriaren IAT azterketa egiteko aukera izango da azaroaren 7an

Alkartasuna kooperatibaren kanpoaldean egin ahal izango da, Atallu industriagunean. Kontuan izan behar da derrigorrezkoa dela hitzordua aldeztatik eskatzea, 943 62 63 00 telefono zenbakira deituta.

Nekazaritza tresneriaren IAT azterketak egiteko aukera izango da, azaroaren 7an, Alkartasuna kooperatibaren kanpoaldean. Udalak aditzera eman duenez, "Usurbilgo zein inguruko herrietako baserri-tarrek baliatu ahal izango dute zerbitzua". Hori bai, derrigorrezkoa da hitzordua hartzea aldeztatik, Irungo IAT gunera deituta (943 62 63 00).

**Usurbilgo nahiz inguruko herrietako interesatuentzat**  
Nonbait, garai batean baserrietan bertan pasatu ohi zituzten IAT azterketak, baina araudiaren aldaketa bat tarteko, desagertu egin da zerbitzu hori. Horren ordez, hainbat herritan azterketa egun banatan egitea eskaintzen dute. Esan bezala, Usurbilgo nahiz inguruetako he-

rietako interesatuek azaroaren 7a aukera aparta dute azterketa horiek Usurbilen bertan egiteko.

## Eskudirutan ordaindu behar da

Ohar garrantzitsu bat, azterketa egiteagatik pagatu beharrekoa eskudirutan ordaindu behar da.

## Greba sektore publikoan

Itxita zegoen Potxoenea, Sutegi udal liburutegia, baita udaletxea ere. Atez ateko bilketa zerbitzurik ez zen eskaini ezta udal langileen bidez ematen diren gainerako zerbitzuak ere. Aginagako eta Zubietako eskolen eguneroko jarduna ere etenda zegoen.

Begi-bistako eragina izan zuen gehiengo sindikalak (LAB, ELA, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK) urriaren 25ean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sektore publikoan deitutako greba egunak.

## Lan baldintzak hobetzearen alde


Potxoenea edota liburutegi atarian ohartarazia zegoen moduan, "zerbitzu publikoak indartzeko hemen adostu!" galdegin zuten sektore honetatik. Eta horrekin batera, lan baldintzak hobetzea ere eskatu zuten; besteak beste, lan kargak arintzea, osasuna bermatzea, Estatutik datozen mugak ez onartzea, enplegua sortu eta erabat egonkortzea, pribatizaziorik ez onartzea sektore publikoa indartzearekin batera eta zaintza publikoa galdegiten dute, politika feministak.

## Abenduaren 19an, bigarren greba eguna

Gogoan izan, aldaketarik ez bada, abenduaren 19rako deitua dute aipatu sindikatu guztiek bigarren greba eguna sektore publikoan. Aldeztatik, Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba eguna deitu du baita azaroaren 30erako.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun behar da.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta notatasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberrí 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus





Alor ezberdinetako eragile eta herrikideek parte hartu zuten "Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat" aurkezpenean. NOAUA!

# Lau misio, herri bizigarriago bat jomuga

Hiru misio eta laugarren bat "zuekin batera" landu nahi dutena. Modu honetan aurkeztu zuen Usurbilgo Udalak, datozen urteotarako "Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat" herri proiektua, herrikide eta eragileez inguratuta, urriaren 27an Zumarte Musika Eskolako ganbaran.

Lehenengo misioa, herrian abian den zaintza ekosistema berria eraikitzeko prozesuari begirakoa izango da. "Zaintzen duen herria izan nahi dugu". Horretarako ezarri dute honako misioa: "2030erako norbere bizitza proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena". Misio hori gauzatzeko helburuok finkatu dituzte: 65 urtetik gorako pertsonen %25ak zaintza plana martxan izatea; Usurbilgo 5 auzotan %25 gizonezkoak izango diren zaintza sareak martxan jartzea; zaintza langile eta familien %50 zaintza ekosisteman egotea; eta etxetz etxeko zerbitzua jasotzen dutenen kopurua eta

zaintzarako prestazioa jasotzen dutenena orekatzea (%50).

Bigarren misioa, Udala barrutik eraldatzen segi nahi dute, orain arteko departamenduzko udal egituraketa zaharkitua birdiseinatu, sailen arteko koordinazioa eta elkarlana hobetu, eta, azken batean, herritarrei eskaini beharreko zerbitzua hobetzeko, herritarrengana gerturatzeko. "2026rako udalak herritarrei ematen dien zerbitzua 10ekoa izatea: gehienez ere 10 minutu itxarotea zuzeneko arretan, herritarren eskaerei 10 egu-

**"2030ERA KO ZAIN TZA EREDU INTEGRAL ETA DUINA LORTZEA"**

neko epean erantzutea eta udala osoki digitala izatea". Hori horrela izateko garden-tasuna eta komunikazioa hobetu nahi dute; herritarrekiko arretan, entzute aktiboan ere eragin nahi dute.

## Kosorkuntza prozesua

Hirugarren misioa; 650 Usurbil Bizi egitasmoari lotutakoa da. Herri identitatean, baloreetan, ondarean eta Usurbilek dituen proiektu eraldatzaileetan oinarrituriko eredu berri bat garatzeko bidean, honako misioa finkatu dute.

**"2026RA KO UDAL ZERBITZUA HAMARREKOA IZATEA"**

"2030erako Usurbilgo bisitarien %30ak Usurbilgo komunitate zaintzailea, euskal arte garaikidea, ondare kulturala eta ekologia ardatz duen gizarte eraldaketa ezagutu eta bisitatu dezala lortzea".

Aipatu moduan, laugarren misio bat ere aurkeztu zuen Udalak, "Usurbil jasangarriagoa eta bizigarriagoa zerumugan"; trantsizio ekosozialari lotutakoa. Honako hau ordea, herritar eta eragileekin batera garatu nahi du. Laster, erronka honi erantzuteko lotutako kosorkuntza prozesua abiaraziko dute. "Elkarrekin eraikitzea" nahi dute eragile eta herritarrekin.

## Egiteko modu berriak, pizgarri

Udalaren esanetan, "helburu inspiragarri eta anbiziotsuak ezartzen saiatu gara, gure eragile eta herritarrak motibatuko dituztenak Usurbilgo eraldaketara". Izan ere, horixe sustatu nahi dute; herritar eta eragileen arteko harreman-tzeko modu berriak eraiki eta "gure herriaren istorio berriak kontatzen hastea". Norabide horretan murgilduak dauden eragileak eta haiek abian dituzten eraldaketa prozesu berriok aurkezpen ekitaldiaren erdigunera ekarri nahi izan zituzten.

Tartean, 650 Usurbil Bizi egitasmoak orain arte egin-dako bidez mintzatu ziren haren sustatzaileak. Herri hau "nola erakutsi" azaltzen duten 14 erronka definituak ditu 650 Usurbil Bizi egitasmoak, hainbat lan-ildo abiarazten ari dira. "Gogotsu ari gara egitasmo honetan eta egiteko modu berri hauek ilusioa sortzen digute", adierazi zuen proiektu honen dinamizazioaz arduratzen ari den NOAUA! K.E.-ren ordezkari Alaitz Aizpuruak. Egiteko modu ezberdina definitzen duten bi ezau-garri goraipatu zituen; eragile-teen arteko lankidetzeta eta konfiantza. Bere esanetan, egitasmo hau baliagarria da

azaltzeko, "herri gisa badakigula antolatzen eta halako erronkei aurre egiten". Berriki antolaturiko Xumetik jaialdia aipatu zuen adibide gisa. Usurbilgo Kulturgunea izan zuen antolatzaile nagusia. "Horrek ekarri du 650 Usurbil Bizi egitasmoaren bueltako mahaian gure lan egiteko modua erabat aldatzea, erraztea. Denok mahai berdinean ginenez, babestuak sentitu eta erantzun guztiak izatea", azaldu zuen Kulturguneko ordezkari Agurne Alkortak. Ebaluazioa egin behar dute orain, "baina erabat beharrezkoa ikusten dugu mahai horretan gure hitza egotea". Sortzaile eta alor horretako eragileek osatzen dute Kulturgunea. Herri honek sorkuntzaren ikuspegitik duen aberastasunaren adierazle, beste behin, ekitaldia bera girotu zuten Zumarte musika eskolako saxofoi taldearen, hitzordua ematen ari zena ilustratzen aritu zen Joseba Larratxeren edota Luken Arkarazo, Malen Azpiazu eta Elene Alustiza musikarien parte hartzea.

**"Zaintza, denon ardura da"**  
Zaintza ekosistema berri bat eraikitzeko prozesuan murgilduak daudenek ere hitza hartu zuten baita. "Niretzat zaintzaz hitz egitean garrantzitsua da esatea nola nahiko genukeen zainduak izan", zioen Elena Rikondok. Azaldu zuenez, lantzen ari diren eredu berriak "nahi duena da pertsona ez baztertea eta izugarritzko erronka da". Zaila izan arren, "zioenez, oso tamaina polita du herri honek halako proiektu bat egiteko". Ildo beretik mintzatu zen baita, prozesu honen sustatzaileetako bat den Matia funda-



Abian diren prozesu eraldatzaileetako protagonistek hartu zuten hitza. NOAUA!

zioko ordezkaria. "Denok ari gara ahal dugun neurrian arraunean hau guztia eraldatzeko. Udalerrak begira ditugu". Ezinbestekoa iruditzen zaio herri zaintzailea izateko, lehenbizi "denok hartzea gustuko dugun bizimodua izatearen ardura. Bizi planak egin behar ditugu era parte hartzaile batean". Gogorarazi zuenez, "zaintza denon ardura da".

Kalezarko zaintzadun auzune berritik gertu, laster zabalduko dute Pelaiouenean Emakumeen Etxea. Haren sorkuntza prozesuan lanean aritu den lan taldeko kide batek ere berebizipenak partekatuzituen Zumarteko ekitaldian. "Denak oso konprometitua egon gara

**"BIZI PLANAK EGIN BEHAR DITUGU ERA PARTE HARTZAILE BATEAN"**

proiektuarekin hasieratik. Gure bileretan nabarmen geratu zen emakume usurbildar izateko modu asko daudela", azaldu zuen Maria Fernandezek. Prozesu honi esker, haien artean sortu den "konplizitateak indartzen gaitu". Herriko dinamiketan parte hartzearen garrantzia nabarmendu zuen, "herritar gisa ahalduntzeko".

**Gobernantza eredu berrirantz**  
Beste misioetako bat trantsizio ekosoziala izango da. Dagoeneko alor honetan herria egiten ari den bidearen adibide dugu sortua den energia berriztagarrien komunitatea. "30 herritarrek eratu dugu momentuz eta orain herrira zabaltzea izango da hurrengo

**ZUMARTEN AURKEZTURIKOA, "ZUEN PROIEKTUA IZATEA NAHI DUGU"**

urratsa", azaldu zuen prozesu honek bidelagun izan duen Goieneko kooperatibako ordezkari Alazne Arrutik. Aginagar moduan, aurrerapauso garrantzitsutzat jo zuen baita bertan dituzten eragileen artean egituratzeko eginiko bidea eta aurrera begirako ga-beziak identifikatzen hastea. "Udaleko mahaiarekin zuzenean batzeko aukera izan dugu eta uste dugu askoz efizienteagoak izango direla bilerak".

Bi udal tekninarik ere parte hartu zuten ekitaldian, udal barruan bideratzen ari diren prozesua azaltzeko. Orain arteko sail guztiak hiru arlotan (lurraldea, herritarrak eta antolaketa) bildu dituzte. Hartara, "langile askok udal osoko dimentsioaren, egiten ari garenen ikuspegia dugu", zioen Nora Erdozia udal arkitektoak. Horrekin batera, digitalizazio prozesu betean da Udala. Barne eraldaketa honen guztiaren gakoetako bat Ibon Goikoetxea udal ingurumen teknikariaren esanetan, "horren guztiaren eskalarekin asmatzea da".

Finean, udaletik gobernantza eredu berri bat eraiki nahi dutela adierazi zuen alkate Agurtzane Solaberrietak, egungo erronka globalei tokikotik erantzuteko. Hor kokatu zuen, udal barnean egiten ari diren barne antolaketaren berritzea eta "udala ere misioen logikatik egituratzea, lankidetzazko gobernantza eredu berri bat ahalbidetzeko". Berrikuntza prozesu horretan, gainera, prozesuaren beraren ebaluazioa egin nahi dute, "egiten ari garena misiora gerturatzen gaituen edo ez" egiaztatzeko. Herri proiektuan parte hartzeko gonbita egin zuen. "Zuen proiektua izatea nahi dugu".

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Txirikordako bizikidetza arautegia hasieraz onartu zuten iragan asteko osoko bilkuran. NOAUA!

# Txirikordako bizikidetza araudia onartu dute

Belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko bizikidetza araudia hasieraz onartu zuten. Udalbatzak urriaren 26an eginiko osoko bilkuran aho batez hartutako erabakietako bat izan zen. Azaroko saioa egun bat aurreratzea erabaki zuten, datorren greba feministagatik.

Urrats berri bat Txirikorda irekitze bidean. Belaunaldiarteko etxebizitza komunitario barneko bizikidetza arautuko duen erregelamendua hasieraz eta aho batez onartu zuen udalbatzak iragan urriaren 26ko osoko bilkuran.

Urte hasieran, Udalak etxebizitza hauek esleitzeko onarturiko ordenantzari erantsiko diote araudi hau, aparteko bigarren araudi bat sortu beharrean. Besteak beste, hilero egin beharreko ordu komunitarioen kopurua zehaztuko du ordenantzak baita bizikidetza arauak eta arau hauste motak; arinak, larriak edota oso larriak. Araudi honetako baldintzak ez betetzeak "Udala eta errentariaren arteko kontratua bertan behera uztea ekar dezake". Kasuotan, Txirikorda-

ko Komunitateak araudia bete ez duenaren "Irteera Protokoloa martxa jartzea" proposatu ahalko du. Udala izango da, aldiz, kontratua etetea erabakitzeko eskumena izango duena.

Araudi honek Txirikordan osatuko duen bizilagunen asanbladaren eta Usurbilgo Udalaren beraren funtzioak ere definituko ditu. Asanblada osatzen laguntzeko, "Udalak bidelagun bat jarriko du" eta berak "talde dinamikak sustatuko ditu biztanleak bizitza komunitarioak ahalduz bidean", hori bai, "beti ere bizilagunek autoeratzeko duten eskubide eta betebeharrari kalterik egin gabe". Gogoan izan, bestalde, elkarbitzen jarriko diren 18-30 urte arteko eta 65 urtetik gorakoen arteko bizilagunok Txirikor-

dara sartu aurretik formazio saioak jasoko dituzte.

Ezinbesteko urrats gisa jo du udal gobernu taldeak onarpen hau, jada esleituak diren etxebizitzetako bizikideekin kontratuen tramitazioari ekiten hasteko. Horrez gain, belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioak izango duen zonalde komunitarioa izango du eta anitza izango den haren erabilera ere arautuko du ordenantza horrek; besteak bes-

## ETXEBIZITZA HAUEK ESLEITZEKO ONARTURIKO ORDENANTZARI ERANTSIKO DIOTE ARAUDI HAU

te, herriari irekia eta Txirikordako bizilagunek Usurbilekin partekatuko dituen proiektuen lanketarako eremua izango dena. "Udalak berak eta herriko elkarrekin eta eragileekin izango dute eraikineko erdi-sotoan dagoen erabilera anitzeko espazioa erabiltzeko eskubidea. Honenbestez, Txirikordako komunitateak espazio honen erabilera publikoa bermatu beharko du", dio hasieraz onarturiko araudiak.

### Bermearen itzulera

Txirikordatik metro batzuk bidean gorago, urte luzez Haur Eskolaren eraikin berean egon den Puntapax Eguneko Zentroa ere hizpideetako bat izan zuten iragan asteko osoko bilkuran. Orain arte, egoitza hau kudeatu duen GSR enpresari berak aipatu gunearen erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontraturako jarritako 70.306,14 euroko bermea itzultzea aho batez onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Udalarekin zuen kontratua otsailean amaitu zen eta ez zen luzatu. Gogoan izan, aurrerantzean, Matia bidez eskainiko da zerbitzu hau Egurtzezin, Kalezarren kokaturiko zaintzadun etxebizitzaren auzune berrian.

### Hurrengo saioa, lehenago

Hilero azken ostegunetan egingen duten osoko bilkura. Azaroko ia izatez hilaren 30ean egokituko da, Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaindaria eskubide kolektiboaren alde deitutako greba feministaren egun berean hain zuzen. Udal gobernu taldetik deialdi hau babestu eta sustatzeko asmoa agertu zuten iragan asteko osoko bilkuran. Honenbestez, azaroko udalbatzarra hilaren 29ra aurreratzea proposatu zuten. Aho batez hala egitea onartu zuten. "Sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista eta arrazista salatuko dugu", iragarri du Euskal Herriko Mugimendu Feministak.





Euskararen aurkako oldarraldiari lotutako adierazpena bozkatu zuten unea, urriaren 26ko osoko bilkuran. NOAUA

# Euskararen aurkako oldarraldiari erantzunez

Euskararen aurkako oldarraldiari erantzuteko Euskalgintzaren Kontseiluak hainbat eragileren babesarekin larunbatean Bilbon antolatu duen manifestaziora joateko deia egin dute. Horrekin bat egin du Udalak egunotan onartu duen adierazpenak.

Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazioa deitu du azaroaren 4an 17:00etan Bilboko Euskaldunatik, "Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat" aldarripean. "Euskararen normalizazioaren kontrako oldarraldiaren testuinguruan kokatzen da. Izan ere, azkenaldian auzitegiatik areagotu egin dira euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak".

## Adierazpena

Horregatik, "hizkuntza-aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten duten eragile eta norbanako guztiei gonbidapena luzatzen zaie oldarraldiaren aurrean euskararekin bat egitera, euskaraz bat izatera". Manifesta-

zioaren atarian, sei puntuko adierazpen hau onartu zuen udalbatzak urriaren 26ko osoko bilkuran gehiengo osoz (EHBildu eta EAJ alde, PSE aurka):

1-Kezkaz eta larritasunez hartu ditugu euskararen indarberritze-prozesuaren aurkako azken epaiak, guztietan berbera izan baita norabidea. Epai hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.

2-EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten diete UEMAK eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoei: hizkuntza-plangintzari, kontratazioari eta euskara lehenesteari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta

herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia hauek oztopoa besterik ez dakarte. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenesteari aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik, ordea: minorizatutako hizkuntza aurrera bidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.

3-Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskal-

**"EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN KONTRAKO OLDARRALDIAREN TESTUINGURUAN KOKATZEN DA"**

dunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.

4-Udalerrri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.

5-Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: norke ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.

6-Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai hauek beste arrazoi bat jarri dute kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMAKo kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei.



650 Usurbil Bizi proiektutik sortutako ekimen honek jarraipena izango du aurten. Usurbilgo Udala, Kulturgunea eta Hurbilago elkarlanean arituko dira beste behin ere. Otarren banaketa abenduaren 31n egingo da.

# '650 Usurbil Bizi' otarrak prestatzeko garaia da

Urte amaieran, Usurbilgo sortzaile eta ekoizleen produktuekin osatutako otarrak zozkatuko dituzte Usurbilgo tokiko merkataritzako saltoki txikiek. Saskian parte hartu nahi duten ekoizleek eta sortzaileek azaroaren 10era izango dute proposamenak aurkezteko epea.

Usurbilgo lehen sektoreko ekoizleek eta kultur sortzaileek izena eman behar dute, [www.gertuago.eus](http://www.gertuago.eus) webgunearen bitartez, azaroaren 1etik 10era bitartean. Ekoizle bakoitzak erabakiko du zer eskaintza egin, 200 euroko aurrekontuarekin, BEZa sartu gabe. Bete beharreko baldintzak:

## Kultura eta sormen

### industriako jarduerarako:

- Usurbilen erroldatutako herritarra edo elkarte izatea.
- Eskaintako produktuaren egilea edo autorea izatea. Taldean egindako lanak badira, taldekideen %33k, gutxienez, Usurbilen erroldatua egon behar du.
- Azken 5 urteetan merkatu-ratutako produktua izatea.
- Kultura eta sormenaren industriako ondorengo jardue-

ra-adarren bateko eragilea izatea: musika, literatura, arte eszenikoak, ikusmen-arteak, bestelako kultur diziplinetako eragileak, moda diseinatzaileak eta sormen industriako bestelako eragileak.

### Lehen sektorea, ostalaritza eta elikaduraren industriako ekoizleentzat:

1. Lehen sektorea: nekazaritza edota abeltzaintzaren sektoreko jarduera bat izan eta ekoizpen-ustategia Usurbilen daukatenak.
2. Elikadura-industriako ekoizleak: Usurbilgo lursailtan kokatutako nekazaritza edota abeltzaintzako ekoizpen propioa duten sagardogileak eta elikadura-industriako bestelako ekoizleak.

Elikadura-produktuak eskaintzen dituzten ekoizleek,

jakien osasun erregistroan inskribatuta egon beharko dute edo osasun-baimena izan, hala dagokien kasuan.

### **Ekoizleen eskaintzak onartzeko prozedura**

Ekoizlek bere eskaintza aurkeztu behar du, [www.gertuago.eus](http://www.gertuago.eus) webgunearen bitartez, azaroaren 1etik 10era bitartean. Ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren,

## **USURBILEN ERROLDATUTAKO SORTZAILEEN ETA EKOIZLEEN PRODUKTUEKIN OSATUKO DIRA OTARRAK**

egindako eskaintzaren onarpena bidaliko zaie ekoizleei, azaroaren 22a baino lehen; eskaintako produktuak noiz eta non entregatu behar diren ere zehaztuko da bertan. Edozein zalantza argitzeko, [gertuagosareak@gmail.com](mailto:gertuagosareak@gmail.com) helbidera idatzi daiteke edo 652 085 811 telefonora deitu.

### **Otarraren aurkezpena, abenduaren 3an**

Udazkeneko azoka antolatuko du Hurbilago elkarteak abenduaren 3an, eta egun horretan egingo da Usurbilgo ekoizle eta sortzaileen produktuekin osatutako 2023ko otarraren aurkezpena.

### **Zozketan parte hartzeko aukera, abenduak 4-30**

Gabonetako zozketa jarriko du martxan Hurbilagok abenduaren 4an, herriko saltoki txikietan egiten diren erosketak saritzeko. Usurbilgo ekoizle eta sortzaileen produktuez osatutako otarren zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dira.

### **Otarren zozketa eguna**

Sarituak zein diren erabakiko da zozketa bidez; abenduaren 30ean egingo dira zozketak eta abenduaren 31ko eguerdian banatuko dira, frontoian.

## **2022ko datuak**

Usurbilgo 34 ekoizle eta sortzailek hartu zuten parte iaz. 7 kultur sortzailek, 2 moda diseinatzailek, 10 musikari edo musika taldekide, lehen sektoreko 10 ekoizle eta 5 sagardogilek.

Horrez gain, Hurbilago elkarteak diren 18 saltokik hartu zuten parte otarren zozketan, eta 90 otar banatu zituzten berezkoen artean.

## MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

**01**

Publizitatea  
 · Papera  
 · Atari digitalak  
 · Telebista

**02**

Estrategia eta planifikazioa

**03**

Komunikazio kanpainak

**04**

Edukien sorkuntza

**05**

Argitalpen digital multimedia

**06**

Webguneak eta marketin digitala

**07**

Diseinu lanak

**08**

Identitatea eta marka irudia

**09**

Ikus-entzunezkoak

📍 Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

☎ 943-81 38 41 ✉ [gukazerbitzuak@ukt.eus](mailto:gukazerbitzuak@ukt.eus)

# noaua.eus

## Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...  
 Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

# Nafartarrak taldearen solasaldi zikloa martxan da

“Vasconiatik Iruñera, Pirinioetako Erresuma 711-824. Eneko Haritza” izenburuko zikloa antolatu dute Nafartarrek.

## Urriak 30-azaroak 6

• 18:00-20:00 Erakusketa Sutegin.

## Azaroak 2, osteguna

• 19:00 'Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen' liburu biografikoaren aurkezpena Sutegiko erakustaretoan. Hizlaria: Oskar Arantzabal. Zehaztasunak: “Federico Krutwig Euskal Herriak XX. mendean izan duen pertsonaia nabarmenatariko bat izan da. Euskaltzaina, idazlea, politikaria, poliglota eta poliedrikoa. Errenazimenduko gizona. Nabarralde bere bizitza, pentsaera eta lanak jasotzen dituen liburua argitaratu zuen. Tartean da Oskar Arantzabalen testu bat”.

## Azaroak 4, larunbata

• 10:00 Jardunaldia Sutegin. Bi hitzaldi:

Banu Qasi Vascones islami-zados, Jose Luis Orella Unzuere eskutik (hizkuntza: gaztelera).

Zehaztasunak: “Iruñeko erresumaren jatorrian, familia handi baten presentzia eta eragina agertzen da: Banu Qasitarrak, baskoi islamizatuak, Eneko Aritzaren zuzeneko ahaideak eta Casioeren seme-alabak, erromatar arbasoen leinu baten ondorengoak. Euren botereari eta Kordobako kalifekin zuten loturari esker, laguntza garrantzitsua eman zioten nafar erresumari, hasieran eta etsai frankoen aurkako borrokan”.

Errozabal/Orreaga 824 ko gudu, Beñi Agirre Oiartzabalen eskutik.

Zehaztasunak: “Orreagako ez zen bataila bakarra izan.



Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen (Nabarralde) liburuz arituko dira ostegun honetan, hilak 2, Sutegin. ARGAZKIA: NABARRALDE.

Errozabalen hamaika aldiz jokatu ziren gudaldiak, azken hiruak erabakigarriak; mugarria, 824an, Eneko Aritza buruzagia zorutik altza zutenean”.

• 12:00 Mahaingurua Sutegiko auditorioan: Iñaki Idigoras, Iñigo Larramendi eta Angel Rekalde. Moderatzailea: Mentxu Zorita.

Zehaztasunak: “Orreagako batalla irabazi ondoren, Iruñeko erresuma gauzaten da. Nafarroa eta euskaldunen independentziaren jatorria. Ze balore dauka gaur egun horrek? Ze esanahi ematen diogu? Zer dakigu? Noraino

ulertzen dugu gure izatearen oinarrian dagoela, mila urtez herri librea izatea eta esparru propioa edukitzea: hizkuntza, kultura, identitatea, lurraldea... garatzeko”.

## Azaroak 6, astelehena

• 19:00 'Galeuzca, La Periferia contra el Páramo' liburuaren aurkezpena udal liburutegian, Xosé Estévez egilearen eskutik. Zehaztasunak: “Liburuak XX. mendean Galizia, Euskal Herria eta Kataluniaren arteko akordio politikoak jasotzen ditu”.

Antolatzaileak: Nafartarrak, Usubilgo Udal liburutegia.

## 'Udazkena Liburutegian' oparo dator

“Udazkena Liburutegian” bizitzeko gonbita egin digute Sutegitik asteotarako iragarri dituzten hitzorduon bidez.

## Azaroak 6, astelehena

• 19:00 Xosé Estévez-en *Galeuzca, La Periferia contra el Páramo* (Nabarralde) liburuaren aurkezpena. Nafartarrak-ek eta Sutegi udal liburutegiak elkarlanean antolatua.

## Azaroak 9, osteguna

• 17:30 Irakur Jolas Txokoa 3-5 urteko haurrentzat. Laguntzaile batekin etorri beharko dute. Partaide kopuru muga-

tua. Izen-ematea Sutegi udal liburutegian.

## Azaroak 15, asteazkena

• 18:15 Irakurketa solasaldia. 8-11/12 urtekoei zuzendua. Mintzagai: *Marixor* liburuak. Egilea, Yolanda Arrieta, bertan izango da. Liburuak eskuragarri Sutegi udal liburutegian. Sarrera doan.

## Azaroak 21, asteartea

• 19:00 *Vuelta al país de Elcano* (Libros del KO) liburuaren inguruko hitzaldi-solasaldia Ander Izagirrenen eskutik. Nahi izanez gero, libu-



Mari Garcia adituak gidatuko du azaroaren 9ko Jolas Txokoa.

rua eskuragarri Sutegi udal liburutegian.

## Azaroak 28, asteartea

• 19:00 Dorleta Kortazarren *80 amandre* helduentzako

ipuina kontaketa saioa Sutegin, Udal Parekidetasun Sailaren eskutik.

## Antolatzaileak:

Sutegi Udal liburutegia.



"Haurren aurrean, helduok heldu" ekimeneko liburuen trukea ikastolan. NOAUA!



"Konponbiderako Giltzak" manifestua aurkeztu zuen Sarek. NOAUA!



Idazleen sorkuntza lanen topaleku izan zen Booktegiren jaialdia. NOAUA!



Herrikideek poesia errezitaldi bikaina eskaini zuten Booktegi jaialdian. NOAUA!



Udarregikoek landutako ipuinak antzeztu zituzten Booktegiren jaialdian. NOAUA!



Pettiren kontzertuak eman zion amaiera Booktegi jaialdiari. NOAUA!



OTAR GOXO HARATEGIA (Usurbil)

## URRIAK 28 - AZAROAK 11

Gure harategietan erosi eta irabazi doan baserriko arrautzak eta txistorra hilabetez!

🌐 [harakinagipuzkoa.eus](http://harakinagipuzkoa.eus)    📷 @harakinagipuzkoa

HARA  
KINAK  
GIPUZKOA  
CARNI  
CEROS

Euskaber

Atxa

GIPUZKOA  
MERKATARIK  
FEDERACION

Diruz leguntzen du:  
Eusko, espainiar, eta eremu

EREMU ERAGILEKIN ERABILTZEKO  
GIPUZKOA

DOKUMENTALA **Bidasoa 2018-2023**


azaroak 5, **IGANDEA**, 18:00 Suteqi

KONTZERTUA **Garri&Maldanbera**

azaroak 10, **OSTIRALA**, 22:00 Suteqi

ANTZERKIA **Kanpora sartzen**

azaroak 11, **LARUNBATA**, 20:00 Suteqi



KONTAKIZUNA ETA TERTULIA **Usurbil borobil erioan dabil**

azaroak 12, **IGANDEA**, 18:00 Suteqi



Sarrerak: aldez aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauaiko egoitzan.

NOAUAIKO KULTURALDIA 2023

USURBIL  
AZAROA



noaua



Usurbilgo Udala



Larunbat arratsaldean, sorterrri ezberdinetako jakiak dastatu ahal izango dira. Ondoren, Senegalgo Ndank-Ndank taldeak musika eta dantza ikuskizuna eskainiko du.

## Mundualdia, sorterrri guztietako herrikideen topagunea

Elkar ezagutu, hartuemanak sendotu... Sorterrri guztietako herrikideen topagunea izan ohi da Mundualdia. Aurtengo edizioa azaroaren 4rako iragarri dute.

Aniztasun Kontseiluan hala adostuta, udalak bi urrats nagusi egin ditu azken hila-beteetan. "Batetik, harrera zerbitzua jarri du martxan: etorri berriek herria eta eskura dituzten baliabideak ezagutzeko hitzordua eska dezakete Usurbilgo Aniztasun teknikariarekin. Ekainetik dago martxan, eta 20 lagun ingurukeskatu dute hitzordua. Oraingoan, udalean eskatu behar da zerbitzua: Emakumeen Etxea irekitzen denean, han eskainiko da", azaldu du Usurbilgo Udalak.

Horrez gain, "herriko baliabideen gida berri du: etorri berriei herriko eskaintza eza-gutarazteko tresna da. Liburuxka horren bidez, era asko-

tako informazioa eskuratuko dute. Batetik, udaleko zerbitzuen ingurukoa: errolda, harrera zerbitzua, gizarte zerbitzuak, euskara ikasteko aukerak, etxebizitza, enplegua, kirola, udal baratzeak, hondakinak, Emakumeon Etxea...

Bestetik, osasun zerbitzuak, hezkuntza eskaintza, eskolaz kanpoko jarduerak, kultura eta aisialdia, kirola eta garraio publikoari lotutakoak ere aurkituko dituzte. Horrez gain, herriko elkarte, eragile eta taldeen berri ere ematen da, baita urteko festa eta ospakizunen berri ere. Lau hizkuntzatan argitaratuko da: euskara-gaztelania, euskara-ingelesa, euskara-frantsesa eta euskara arabiera. Baliabideen

gida ez ezik, hiztegitxo bat ere landu dute, euskaldunak ez diren etorri berriei euskarazko oinarriko esapideak ezagutzeko balioko diona: sei hizkuntzatan egin dute".

### Ongi etorria

Bi egun lehenago, hilaren 2an, gainera, urte hasieratik irailera udalerrri honetara bizitzera etorritakoei harrera egingo diete alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak eta Aniztasun Kontseiluko zenbait

## LARUNBAT HONETAN OSPATUKO DA MUNDUALDIA

kidek. Haiei guztiei hitzordura gonbidatzeko gutunak bidali dizkiete.

Ekitaldiok 2015-19 legealdian eginen hasi zen Udala. Aurrekoan egin ez arren, "aniztasunaren eta elkarbizitzaren gaian sakontzeko lan eta urrats garrantzitsuak egin zituen. Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen txostena egin zuen Aztikerrek, udalaren eskariz: txosten horretan, migrazioaren inguruko iritziak eta diskurtsoak bildu ziren, begirada 1960/70eko migrazioan zein gaur egungoan jarrita. Lan horren ondorio nagusiak gida batean jaso eta etxeko etxe banatu zituen, eta, horrez gain, "Migrazioari maskarak erazten" ikus-entzunezkoa ekointzi zuen. Txostena, gida zein ikus-entzunezkoa udalaren webgunean kontsulta daitezke". Udaletik ohartarazi dutenez, asmoa urtean halako bi ongi etorri saio egitea da.

### Mundualdia

#### Azaroak 2, osteguna

18:00 Alkatearen ongi etorri saioa urte hasieratik irailera bitarte herrian erroldatutakoei Udaleko udalbatza aretoan.

#### Azaroak 4, larunbata

11:00-12:30 Zirimara familian: familien arteko jolasak frontoi inguruan. Antolatzaileak: Zirimara, Gaztelekua, aisialdiko begirale ikastaroko ikasleak. 18:00 Usurbil harrera herri izateko proiektuaren aurkezpena frontoian. Segidan, sorterrri ezberdinetako herrikideen jakien dastatzea. Gero, Senegalgo Ndank-Ndank taldearen ikuskizuna.

Antolatzaileak: Udala, Aniztasun Kontseilua.

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

**Uraltz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392

uraltz@uraltz.com USURBIL



Ixabel Agirresarobek bere kontakizuna osatzeko egindako hizketaldietako bat. NOAUA!

# Ixabel Agirresarobe: "Errioa neure egin dut, edo ni berea egin naiz"

**IXABEL AGIRRESAROB**E IPUIN KONTALARIA

"Usurbil borobil erroian dabil" ipuina aurkeztuko du Ixabel Agirresarobe Arzallusek NOAUA! K.E.-k antolaturiko Kulturaldiaren baitan. Azaroaren 12an izango da, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Usurbilgo Udalak sorkuntzarako duen dirulaguntza deialditik ondu du Ixabel Agirresarobe Arzallus herrikideak "Usurbil borobil erroian dabil" kontakizuna. Oriaren mutur batetik bestera, Zubietatik hasi, Santueneatik segi eta Txokoalde zein Aginagaraino, leku hauetako guztietako hainbat bizilagunekin bildu eta izan dituen hizketaldietatik landu du NOAUA! K.E.-ren Kulturaldiaren baitan, azaroaren 12an aurkeztuko duen ipuina. "Gure herriko erroaren ipuin bat", halaxe definitu du Sutegin aurkeztuko duen sorkuntza lana. Entzun soilik ez, hitza hartzeko aukera izango da ekitaldian zehar. Izan ere,

Usurbilgo kontalariak proiektu honen erdigunera ahozko-tasuna ekarri nahi du. Hauxe sustatu nahi izan du bere sorkuntza prozesuan Agirresarobek. Datorren hilaren 12an ere gauza bera egin nahi du. Lanketa honen emaitza aurkezterakoan ere tertulia giro goxoa sortu nahi du kultur-etxean eta herriko historia osatzen segi.

**Errimadun izenburua du ipuinak.** Errimak du buruan lehenago geratzen dela eta gogoratzeko errazagoa da. Grazia egin zidan, jolas modukoa izan da.

**Errio ertzeko bizilagunen leku-kotzekin osatu duzu ipuina ezta?**

Bai, haiekin bildu naiz. Fisiokoki erroia ukitzen duten lau "asentamenduetan" dagoen jendearekin.

**Haien bidez, erroia sakonago ezagutzeko aukera izan duzu?** Nik ez nekizkien kontuak entzun ditut, beste batzuk baiez-tatu egin ditut.

**Herri hau garai batean erroari lotuagoa, egun bizkarra emanda**

**"ERRIOAREKIN BIZI IZAN DEN JENDEAREKIN HITZ EGIN NAHI NUEN"**

**bizi dela begi bistakoa da. Leku-kotza horiek baiez-tapen hau berretsi dute?**

Bai, dudarik gabe. Hauetako "asentamenduetako" batean, batek esan zidan lehenengo gauza horixe izan zen; orain erroari bizkarra emanda bizi garela. Bizimodua aldatu da, orohar, denean.

**Nola hurbildu zara gai honetara, zergatik?**

Niri erroia urrutikoa izan zait. Izan ere, ni Usurbilgo plazakoa naiz, Kaxkokoa. Errioa ikusi izan dut txikitik, Landaberri-ra joaten ginelako autobusean. Errioa "koloretan" ikusten genuen. Koloreak badakigu nolakoak ziren, laino txuri horiek... Egutero ikusten genuena guretzat normala zen. Zorionez, kolore horiek ez ditugu ikusten baina erroia hor dago beti autobusean edo trenez Oriorantz joatean, aldiro-aldiro desberdin, itsasgora edo itsasbehera delako, eguraldiagatik, urtaroagatik... Lehorrekoa naiz baina bertako ikuspegiak erakartzen nau, aldiro nola ezberdin ikusten duen, hegazti ezberdinak nola dabilizan, zuhaitz motak ere nola aldatzen diren. Bizirik dagoen ingurua da. Zoragarria da trenez Usurbildik Oriorako ibilbide hori.

**Nondik abiatu zenuen sorkuntza lan hau?**

Errioarekin bizi izan den jendearekin hitz egin nahi nuen. Ni plazakoa izanik, kontatu zer arraio dagoen erroaren inguruan, nola bizi izan diren. Hala hasi nintzen "asentamenduetako" kontaktuekin hizketan. Gustura hartu zuten ideia.

**"Asentamendu" hitza aipatzen ari zara sarritan. Zer zentzu eman nahi diozu kontzeptu horri?**

Badakigu herri honetan bi herri daudela. Herri barruan dago beste herri bat bitan bereiztua bere nortasun propioa duena eta gero dago beste bat, bitan banatua dagoena. Hor



—> istorio batzuk kontatu zizkidaten zergatik duten izen bat eta ez beste bat. Horrek joko eman dit. Errioarekin loturarik izan ez arren, ez nekizkien beste kontu batzuekin lotura du. Horrekin ere jolas-tu dut.

**Errioa sarbide modukoa izan da beste kontu batzuei heltzeko beraz.**

Bai, gauza politak kontatu dizkidate eta gustura egon nintzen. Batzuk izugarrizko memoria dute. Piloa gozatu dut. Nik ezagutzen ez nuen edo bizi izan ez dudana mundu bat dago. Jasotakoa niretik nola ikusi dudana kontatuko dut.

**Nola aukeratu dituzu pertsona horiek?**

Zuzenean joan naiz leku bakoitzean bizi dudana ezagunengana. Gero, haien bidez beste batzuekin kontaktatu dut. Errioa bera bezala, batek bestearengana eraman nau.

**Aurkezpena azaroaren 12an egingo duzu. Nori zuzenduriko ekitaldia da?**

Lagundu nauten pertsona horiek etortzea nahi nuke, ohore handia litzateke. Baita nahi duen orok ere noski, batez ere non bizi garen jakiteko. Ba al dakigu bazter hauetan zer dagoen? Gozatu nahi dut dugunarekin. Hori ere da nire gonbita.

**Ipuina aurkezteaz gain, tertulia modukoa egin nahi duzu.**

Beraiek kontatu dizkidaten istorio guztiak ipuinean txertatzea ezinezkoa izan da. Asko gustatuko litzaidake kontakizuna bukatu eta gero, zerbait ez dudala esan edo konturen bat gaizki kontatu badut esatea. Sormen lan honen helburua izan da istorioa jasotzea baina bereziki ahozketasuna bultzatzea. Ahozketasuna sustatzeko egon behar du hizlariak eta entzuleak. Talde batzuetan bik hitz egin dute haiek zutelako informazio



Eder askoa dugun erroari lotutako kontuak izango ditu hizpide Ixabel Agirresaroberen kontakizunak. NOAUA!

hori. Beste batzuk entzutera joaten ziren. Juxtu hori da nahi dudana, ahozketasun hori erdigunean jartzea.

**Kontalaria zaren aldetik, kontraera horiek jasotzea ere aberasgarria izango zen?**

Boligrafoa eta paperarekin joan nintzen, nik erabiltzen ez ditudan hitzak edo beste gauza politak apuntatzeko. Ahozketasun horretatik, nik zuzenean entzun dudanetik egingo dut kontakizuna. Ahozketasunak hori du, bakoitzak gauzak nahi duen eran kontatzen dituela, beretik. Orduan, transmisio horretan gauza batzuk galdu egingo dira, edo aldrebestu egingo ditut edo auskalo. Horregatik nahi dut ekitaldi amaieran norbaitek zerbait esan nahi badu tertulia modukoa egitea.

**Ahozketasuna kontakizun honen tartean kokatu nahi duzu, ezta?**

**"LAGUNDU NAUTEN PERTSONA HORIEK ETORTZEA NAHIKO NUKE"**

Sormenaren helburua zen ahozketasuna indartzea eta horrekin ehuneko ehun bete dut. Hori gozagarria izan da. Gainera, parte hartu duten herrikideek hitz egitera zetozen. Halakoetan, denboraren ikuspegi hori ez dago, ez da garrantzitsua zenbat denboran hitz egin behar den. Kontuak bukatu zirenean bukatutzat eman genuen egonaldia. Gustura egon naiz. Egonaldia hauetan hitz egiten hasten zara eta gai batek beste batera eramaten zaitu eta ahozketasunarekin ere gauza asko lortzen dira. Asko dago oraindik entzuteko, ez soilik erroari buruz, bestelakoek ere bai.

**Herri honen historiaz ari gara.** Herri honetako historiarekin ipuin bat sortu dut. Ez da dokumentu bat, ez bainaiz kazetaria. Gainera, gustatuko litzaidake jendeak jakitea, bakoitzak bere herrian baduela lekua, kontatzeko ai-

**"UDAL LAGUNTZA HAUEK AURRERA EGITEKO INDARRA EMATEN DUTE"**

tzakia bertakoekin. Ipuinak nork bere herrian sortu ditzake.

**Sorkuntza sustatzeko Udalaren dirulaguntza lerro bati lotua dago zure egitasmoa. Motibagarriak, lagungarriak zaizkizu halako laguntzak?**

Bai, horixe baietz. Laguntza hauek aurrera egiteko indarra ematen dute. Gainera, "erakuslehoan" jartzen zaitu eta motibagarria da. Askotan ideia bat aspalditik duzu bueltaka, baina ez diozu forma ematen. Motibazio horrek aurrera egiten laguntzen du. Beharrezkoak dira. Babes handia ematen dute. Kasu honetan, gainera, NOAUA! Kultur Elkarteak ere aukera ederra eman dit aurkezteko. Beraz, Udalak diruz lagundutako lan bat da baina gero hori plazaratzeko bitartekaria NOAUA! izan denez, iruditzen zait erabat Usurbil borobildu dugula hala.

**Errioarekiko edota herriarekiko zenuen ikuspegia aldatu dizu egitasmo honek?**

Gustagarriagoa egiten zait orain. Jantzi egin nau. Jada ez naiz Usurbilgo Kaxko batean jaiotako pertsona soil bat. Jada erroa ere neure egin dut edo ni berea egin naiz.



Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 35. urtemugako ikuskizuna eskainiko dute.



Fermin Muguruzaren 'Bidasoa' filma ikus ahal izango dugu igande honetan.

# NOAUA!-ren Kulturaldia, egunez egun

Eskaintza oparoarekin bueltan dator NOAUA! K.E.-ren Kulturaldia datozen bi asteburuotan. Haurrentzako ikuskizuna, dokumental proiektzioa, antzezlanak, kontzertua, kontakizunak... Ekintza bete zaku azaroaren 5etik 12ra. NOAUA! kideok sarrerak merkeago eskuratzeko aukera duzue.

## Azaroak 5, igandea

**Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 35. urtemugako "Urteak bete, abenturak bizi!" ikuskizuna.**

- 11:30 Oiardo kiroldegian. "Sudurgorri bizi lagun egin ditugun hainbat etorriko dira bisitan ospakizunean parte hartzera", iragarri dute.
- Sarrerak agortuta daude.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkartea.

## Fermin Muguruzaren "Bidasoa 2018-2023" dokumentala.

- 18:00 Sutegin. Ibaiaren bi aldeetako hainbat ekintzai-

leri ahotsa eta aurpegia emateaz gain, Harrera Sarea eta Bidasoa elkarteetako ordezkariak, bizia galdu dutenak ere gogoan izango ditu; izena, adina, bidaia eta ametsak, hildako kopuru hotzen atzean dagoen istorioa eta pertsonak ezagutuz, modu honetan tragedia gizatiartuz".

- Sarrerak: 6 eurotan azaroaren 5era arte, usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 4 eurotan, NOAUA!ren egoitzan.

## Azaroak 10, ostirala

**"Gari & Maldanbera" kontzertuan**

- 22:00 Sutegin. "Garik, Mal-

danbera taldearekin batera, bere bakarkako ibilbideko azken 30 urteetako abesti ezagunenak errepatatuko ditu".

- Sarrerak: aldeztatik 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat kultur elkartearen egoitzan.

## Azaroak 11, larunbata

**"Kanpora sartzen" antzezlanak**

- 20:00 Sutegin. "Seropositibo baten egunerokotasunean gertatzen diren kontuak aza-

leratu nahi ditu. Lortuko al dute Xabinek eta Birusak kanpora sartzea?".

- Zuzendaria: Aitziber Garmendia Mendizabal.
- Aktoreak: Xabin Fernandez Zubeldia eta Intza Alkain Ibar-guren.
- Sarrerak: aldeztatik 8 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA!-ko bazkideek 6 eurotan NOAUA!-ren egoitzan.

## Azaroak 12, igandea

**"Usurbil borobil erroian dabil" Kontakizuna eta tertulia Ixabel Agirresaroberekin.**

- 18:00 Sutegin. Ixabel Agirresarobe Arzallus herrikideak Zubieta, Urdaiaga (Santuenea eta Txokoalde) eta Aginagako herritarrekin, erriko hainbat kontu eta pasadizo jasotakoarekin ipuin bat sortu da, "gure herriko erroaren ipuin bat".
- Sarrerak: doan.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.



Garik bere ibilbidearen errepatatzea egingo du azaroaren 10ean Sutegin.



Seropositibo baten egunerokoa azaleratuko du "Kanpora sartzen" antzezlanak.



Atzegik Buruntzaldean duen lan-taldeak prentsaurreko bidez aurkeztu zuen udazken honetako kanpainaren muina. Lasarte-Orian egin zen ekitaldia.

# "Gu lanerako prest gaude, eta Gipuzkoa?"

Udazkenarekin batera iritsi ohi da Atzegiren sentsibilizazio kanpaina. 'Ni prest nago, eta Gipuzkoa?' leloaren bitartez, adimen desgaitasuna duten pertsonak plaza publikoak eskuratzeko duten eskubidea nabarmendu nahi dute.

Aurtengo kanpainarekin, Atzegik adimen desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoko plazak eskuratzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi du.

Gizartearen gehiengoak ez daki legez enplegu publikoko plazen %2a adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta egon beharko lukeela. Gaur egun oraindik ezezaguna da jende askorentzat, eta oraindik ere gutxiago dira deialdiak egokitzeko ahalegina egiten duten erakundeak. Hala ere, nabarmendu behar da azken urteotan gauzak aldatzen ari direla eta administrazio batzuk eskubide hori egi bihurtzen ari direla. Beraz, bultzada aprobetxatu nahi da, eta beste administrazio batzuk animatu urrats bera ematera.

Atzegik aditzera eman duenez, "prest gaude arlo horretan aurrerapausoa eman nahi duen edozein administrazio-ri laguntzeko eta aholkuak emateko".

## Eskubidea dena, benetako errealitatea bihurtu

Atzegiren iritziz, oso garrantzitsua baita ingurune arruntan laneratzeko aukerak zabaltzen jarraitzea. "Enplegu publikoko plaza bat lortzea aukera paregabea da gainera haien lanerako gaitasuna gizartearen ikusarazteko", Aloña Agirrek aditzera eman duenez. "Eskubidea benetako errealitate bihurtzea nahi bada, ezinbestekoa da prozesu osoa kolektiboarentzat pentsatuta eta diseinatuta egotea". Ho-

rela bakarrik lortuko da urte batzuk barru "ohikoa izatea adimen desgaitasun duten pertsonak administrazioan lanean ikustea".

Aurtengo kanpainako protagonisten adibidearekin, Atzegik erakutsi nahi du adi-

**"ENPLEGU  
PUBLIKOKO PLAZA  
BAT LORTZEA  
AUKERA  
PAREGABEA DA  
HAIEN LANERAKO  
GAITASUNA  
GIZARTEAN  
IKUSARAZTEKO"**

men desgaitasuna duten pertsonak "prest daudela. Gehienek ilusio handiz egiten die aurre ikasketei, eta plaza gutxi daudela eta aukerak mugatuak direla jakin arren, ez dute amore ematen. Horregatik da hain garrantzitsua Gipuzkoa ere prest egotea eta gero eta aukera gehiago izatea".

## Atzegi, datuetan

### Gipuzkoan

- 2.118 familia (adimen desgaitasuna duten 2.201 pertsona).
- 2.534 kolaboratzaile.
- 10.735 Atzegizale.

### Buruntzaldean

- 171 familia (adimen desgaitasuna duten 165 pertsona).
- 98 kolaboratzaile.
- 555 Atzegizale.

**Informazio gehiago:**  
atzegi.eus



Aurreko igandeko lasterketa Zubietatik igaro zen.

# 40tik gora herrikide, 26. Lasarte-Oria Bai! herri krosetan

733 partaide erakarri zituen Ostadar S.K.T.-k antolatutako herri krosaren 26. edizioak; tartean, berrogeitik gora herrikide.

## 26. Lasarte-Oria Bai! Zubietatik

Xabier Aizpurua Inchausti: 00:38:44  
Asier Azpiroz Izutueta: 00:42:05  
Iñaki Sudupe Nogues: 00:46:12  
Unai Echeverria Olaiz: 00:49:55  
Mikel Alcaide Zudaire: 00:56:26

## Usurbil

Beñat Bereziartua: 00:36:12  
Beñat Lorenzo Olasagasti: 00:37:47  
Marc Bages Bosch: 00:38:28  
Igor Maiz Pagola: 00:38:36  
Irati Larrañaga Matxain: 00:39:03  
Ander Aisa Bengoetxea: 00:39:50

Unai Udabe Imaz: 00:40:01  
Iñigo Sasiain Garcia: 00:40:27  
Xabier Azaldegia Makazaga: 00:40:28  
Iker Perez de Arriluzeta: 00:40:50  
Ekain Salegi Urrestarazu: 00:44:00  
Aitor Agirre Zapirain: 00:44:11  
Oinatz Toledo Zabala: 00:44:14  
Borja Chamorro Navarro: 00:44:26  
Beñat Erauntzetamurgil: 00:45:04  
Julen Elizasu Lertxundi: 00:45:41  
Ainhoa Larrañaga Jaio: 00:45:51  
Julen Lazkano Iturrioz: 00:46:49  
Ikola Iraola Hernandez: 00:46:52  
Maximo Garcia Sanchez: 00:47:53  
Javier Lopez-Jacoiste Ortiz: 00:48:14  
Igor Astiazaran Barreras: 00:48:39  
Carlota Blazquez Martin: 00:48:47  
Aitor Vicente Palos: 00:50:32  
Iñaki Etxeberria Orbegozo: 00:51:46  
Xabier Aranburu Leiva: 00:51:52  
Eduardo Jauregui Torrecilla: 00:52:12  
Ane Mujika Beloki: 00:53:12  
Itziar Irazusta Larrea: 00:53:22  
Kristina Bernal Etxeberria: 00:53:34  
Markel Egizabal Rikondo: 00:54:04  
Alex de Miguel Rikondo: 00:54:05  
Ainhoa Macazaga Ezkurra: 00:56:06  
Hodei Illaramendi: 00:56:07  
Itxaso Fernandez Urigoitia: 00:58:02  
F. Javier Rodriguez Cuenca: 00:58:22  
Xabier Arruti Landa: 00:59:32  
Javier Martinez Manso: 01:00:13  
Karmele Liceaga Alcantara: 01:02:50  
Gorka Mendinueta Avila: 01:05:09

## Futbola Haranen

### Azaroak 4, larunbata Harane futbol zelaian

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT-Lengokoak SD
- 11:30 Kadete neskak: Usurbil FT-Antiguoko KE B
- 15:45 Jubenil Preferentea: -Usurbil FT
- Arrupe Chaminade CDDF B
- 18:00 1. Mailako Erregionala: Usurbil FT B-Intxurre KKE

## Boleibola Oiardon

### Azaroak 4, larunbata

- 13:00 Infantilak: Udarregi-Aldapeta

## Pilota partidak

### Azaroak 2, osteguna

- 19:00 Aginagan: Gipuzkoako kadete 2. Mailan: -Pagazpe (Aburuza-Pagola) -Mundarro

### Gipuzkoako Nagusien

1. Mailan, finalerdiak:  
-Pagazpe (Santxo-Urruzola)  
-Tolosa

### Azaroak 3, ostirala

- 17:45 Usurbilen: -Infantilak eskuz banaka errendimentuko txapelketa 3. Mailan: Pagazpe (Ugarte)-Gazteleku -Pagazpe-Alde Zaharra Pagazpe (Oliva)-Mundarro

## Eskubaloia

Usurbil KE-ko urriko zozketaren zenbaki saritua 0637 izan da. Saria: Patri jatetxean 2 laguntzako menua.

## Errigoraren otarrak eskatzeko epea ixtear da

Aurten saski bakarra egongo da aukeran, 50 eurotan, eta NOAUA!n eska daiteke edo errigora.eus web orrialdean.

Hamar urte bete dituen ekimenak "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka" kanpaina abian du. Hastapenean beza-la, 50 eurotako saski bakarra eska daiteke NOAUA! Kultur Elkartearen edo errigora.eus bidez azaroaren 9ra arte. Ba-

rruan, "23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalak nahasian" izango dituzte.

### Ekarpena ezinbestekoa da Nafarroako euskalgintzarentzat

Erositako kaxa bakoitzaren laurdena Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko dute. "Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikastolen-



Aurten saski bakarra dago aukeran.

tzat eta AEK-ren euskaltegien-tzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamiken-tzat ere", ohartarazi du Errigorak.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
PLATER KONBINATUAK  
BOKATAK · PINTXOAK  
**TABERNA**  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patri**  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztupo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an bertitua. 670 410 273.

## SALGAI

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Harremanetarako: 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarene zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsaldez. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. Harremanetarako: 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduetegi malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest: 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. 602 082 583.

## BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 02	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 03	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 04	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 05	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 06	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astearte, 07	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 08	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 09	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 10	GANDARIAS-URIBE Inigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 11	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 12	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## ZORION AGURRAK



**Zorionak Ekhi!** Azaroaren 9an, 14 urte!! Ondo ospatu zure eguna. Muxu potolo bat etxekoan partez.



**Zorionak, Liher!** Oso ondo pasa zure 10. urtebetetzean!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 03

**USURBIL Greba feministari begirako asanblada**

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren eskutik.  
18:00etan Potxoenean.

**TXOKOALDE Kultur Asteburua Txokoalden: bertso-afaria**

Bertso-afaria Maider Arregi eta Eli Pagola bertsolariekin. Informazio gehiago aldameneko albistean.  
21:00etan Erroizpe elkartean.

## LARUNBATA 04

**USURBIL Mundualdia**

Informazio gehiago 15. orrialdean  
Egun osoko jaialdia.

**TXOKOALDE Kultur Asteburua Txokoalden**

16:00 Mus txapelketa eta toka desafiyaak, Ostolaza eta Pujana trikitilariak, pintxoak eta txotxa... Informazio gehiago aldameneko albistean.

## IGANDEA 05

**USURBIL Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

"Urteak bete, abenturak bizi!"  
11:30ean Oiardo kiroldegan.

**USURBIL 'Bidasoa 2018-2023' dokumentala**

Fermin Muguruzaren dokumentala. Sarrera 6 euro, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri edo egunean bertan, Sutegin.  
18:00etan Sutegin.



Maider Arregik eta Eli Pagolak (irudian) girotuko dute bertso-afaria.

## Kultur Asteburua Txokoalden

Erroizpe elkarteak kultur zikloa iragarri du murgiltzear garen astebururako:

**Azaroak 3, ostirala**

• 21:00 Bertso-afaria Maider Arregi eta Eli Pagola bertsolariekin Erroizpen. Txartelak 20 eurotan salgai Txirrista, Benta, Antxeta eta Artzabal.

**Azaroak 4, larunbata**

• 16:00 Mus txapelketa eta toka desafiyaak, haur, gazte eta helduen artean. Izen-ematea, 15:30ean hasita.  
• Jarraian, Ostolaza eta Pujana trikitilariak.  
• Pintxoak eta txotxa izango da.

**Antolatzailea:** Erroizpe.

## Pirritx eta Porrotx pailazoak kiroldegan

Pailazoek 35 urte bete dituzte eta ospakizun betean dira. "Urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea!... Eta hori izango da gure ospakizuna, beste abentura bat bizitzea!". Igande eguerdian kiroldegan arituko dira. Sarrerak, agortuta.

## Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa zabaldu du Artzabal jatetxean. Bere mar-golanak azaroaren 15era arte egongo dira bertan ikusgai.

## Ikuskizuna helduentzat Sutegin

Harremanen kudeaketan oinarrituriko ikuskizuna helduentzat, azaroaren 8an 17:30ean Sutegin. "Nerea Mendizabal psikopedagoak eta Itziar Saenz De Ojer 'Pituxa' pedagoak harremanen inguruan hausnartzeko begirada umoretsua duen kantu eta elkarrizketa saioa eskainiko dute. Komunikazio ez bortitzaren ikuspegia antzerki, umore, musika eta edukiekin nahastutako ikuskizun dibertigarri honek edonorentzat esan-guratsuak zaizkigun egoeretatik askatzeko arintasuna eskaini nahi da".

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com  
600 024 825

ZALDIGAIN  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

# EUSKAL JAIA '23

AZAROAK 11, LASARTE-ORIA



10:15 | **DIANA HERRIAN ZEHAR.**

10:15-13:00 | **AZOKA** HERRIKOAK DIREN ARTISAU ETA EKOIZLEEN PRODUKTUAK. OKENDO PLAZAN.

12:00 | **PLAZA DANTZA** EGITASMOKO LAGUNEK MUXIKO ETA EUSKAL DANTZEN SAIOA. OKENDO PLAZAN.

13:00 | **TTIRRIKI TTARRAKAKO TRIKILARIEKIN KALEJIRA** OKENDOTIK IRTENDA.

14:00 | **HERRI BAZKARIA** (JATEKOA, NORBERAREN KONTU). OKENDO PLAZAN.

16:00 | **JANTZI TRADIZIONALEN DESFILEA** OKENDO PLAZAN.

17:30 | **BEA EGIZABAL** UMORISTAREN BAKARRIZKETA. JALGI KAFE ANTZOKIAN

18:30 | **PINTXO POTEA** JALGI KAFE ANTZOKIAN OAINTXE IN DEU TXARANGAK GIROTUTA

**ZATOZ  
BASERRITAR  
JANTZITA!**



# errigora

10 urte bete-bete

[errigora.eus](http://errigora.eus)



## Bat egiteko garaia da

50€



urriak 20 azaroak 9

Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka

# noova



# MUNDUALDIA

## 2023

### Azaroak 2, osteguna

**18:00 · udaletxeko pleno aretoan · Ongi etorri saioa**

Alkateak eta Aniztasun Kontseiluak ongietorria emango diete  
2023ko urtarriletik irailera bitartean herrian erroldatutako herritarrei

### Azaroak 4, larunbata

**Goizean (11:00-12:30) · frontoi inguruan · Zirimara familian**

Familien arteko jolasak

**Arratsaldean (18:00etatik aurrera) · frontoian**

Usurbil Harrera Herri proiektuaren aurkezpena

Jakien dastaketa: jatorri ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera

Senegalgo Ndank-Ndank taldearen musika eta dantza ikuskizuna

*Zatoz Usurbilgo jatorri  
aniztasuna ospatzera!*

